

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO KUADRILLA

Kuadrilla Batzarraren zenbait eskumen Tokiko Gobernu Batzarraren esku uztea

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.4 artikuluan ezarritako legezko aukera ikusita, osoko batzak, hau da, Kuadrillako Batzarrak, Tokiko Gobernu Batzarraren esku utz ditzake eskuordetu daitezkeen eskumenak, bertan ezarritako mugekin.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 23.2 artikuluan Tokiko Gobernu Batzarrari esleitzen dio bai kuadrillako lehendakariari laguntzea haren zereginetan bai beste udal organoren batek eskuordetutako eginkizunak.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22. artikulua esleitzen dizkion eskumenak oinarri hartuta, osoko batzak honako erabaki hau hartu du urriaren 30ean egindako bilkuran:

Lehenengoa. -Tokiko Gobernu Batzarrari osoko batzaren eskumen hauek eskuordetzea:

a) Akzio judizialetan eta administratiboetan jardutea eta korporazioa aldeztea osoko batzaren eskumenera gaitan.

b) Kuadrillaren egintzen kaltegarritasun adierazpena egitea.

c) Kreditu eragiketak hitzartzea, horien zenbateko metatuak, ekitaldi ekonomiko bakoitzean, ehuneko 10ean gainditzen baditu aurrekontuko baliabide arruntak –diruzaintzakoak izan ezik, zeintzuk egokituko baitzaizkio une bakoitzeko eragiketa bizien zenbateko metatuak gainditzen badu aurreko ekitaldian likidatutako sarrera arrunten ehuneko 15a –; hori guztia, bat etorri Toki Ogasunak arautzen dituen Legeak xedatutakoarekin.

d) Legeriak lehendakariari esleitzen ez dizkion administrazio kontratazioak. Inola ere ez dira eskuordetuko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 47.3 artikuluko gehiengo bereziak behar dituzten ondasunak edo zerbitzuak emateko erabakiak.

e) Obra eta zerbitzuen proiektuak onestea, baldin eta eskumenik badu horiek kontratatu edo emateko, eta aurrekontuetan oraindik jaso gabe daudenean.

f) Ondareari buruzko legeriari lotutako ondasun higiezin eta higigarriak eta eskubi-deak eskuratzea, eta erakundearen ondasunen gaineko emakidak esleitzea, bai eta ondare besterentzeak egitea ere, baldin eta lehendakariari esleitu ez bazaizkio, eta balio historiko edo artistikoa duten ondasunak, edozein dela ere haien balioa.

g) Legeek espresuki esleitzen dizkion gainerakoak.

Bigarrena. - Erabaki hau indarrean sartuko da hura hartu eta hurrengo egunetik aurrera, Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamenduen 51. artikuluan ezarritakoari jarraituz, hartatik eragotzi gabe gero ALHAOn argitaratzea, aipatutako Erregelamenduen 53.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena. - Erabaki hau batzarreko talde politikoetako bozeramaileei jakinaraztea, kuadrillako zerbitzuei eta ALHAOn argitaratzea.

Arespalditza, 2019ko urriaren 31

Lehendakaria

ENCINA CASTRESANA ASTARLOA